

El Sindicato Socialista de Vivienda denuncia a Desocupa CyL, la empresa que trato de desahuciar a una familia en Burtzeña, y reclama la suspensión de las empresas de desokupación fascistas

La organización anuncia una denuncia ante la Agencia Estatal de Protección de Datos por la exposición pública y difusión de datos personales de familias trabajadoras

El Sindicato denuncia el carácter fascista de estas empresas y exige su suspensión

Los últimos casos en Irún, Barakaldo y Zornotza muestran que la organización es la herramienta más eficaz para frenar sus actuaciones

Denuncia contra Desocupa CyL

El Sindicato Socialista de Vivienda ha anunciado la presentación de una denuncia contra la empresa de desokupación Desocupa Castilla y León (Desocupa CyL), una empresa que en los últimos meses ha intensificado su actividad en distintos puntos de Euskal Herria.

La denuncia ha sido presentada ante la Agencia Estatal de Protección de Datos y se centra en una de las prácticas habituales de estas empresas: la difusión pública de información personal de familias trabajadoras a través de redes sociales.

Según denuncia la organización, el modelo de negocio de estas empresas depende en gran medida de la exposición pública de personas vulnerables. En cuentas con miles de seguidores difunden vídeos e imágenes en los que se revelan domicilios, identidades e incluso aspectos de la vida privada de las familias afectadas, alimentando campañas de señalamiento y odio.

Tal y como señala el Sindicato Socialista de Vivienda: «En cuentas con miles de seguidores publican vídeos en los que se revela el domicilio, la identidad e incluso la intimidad de muchas personas. En ellos se llama abiertamente al odio contra estas personas, creando relatos falsos y criminalizadores».

La organización considera especialmente grave que se normalicen este tipo de prácticas y subraya que una situación de vulnerabilidad económica no puede justificar la exposición pública de ninguna persona. «No podemos permitir que se normalice semejante salvajada: que una familia no pueda pagar el alquiler no es óbice para que su intimidad sea expuesta en redes sociales como objeto de odio».

El Sindicato destaca además que esta actuación judicial supone un paso novedoso en la lucha contra estas empresas. Sin embargo, recuerda que el problema es mucho más profundo. A su juicio, toda la actividad de las empresas de desokupación debería estar ilegalizada, ya que se fundamenta en la intimidación, la coacción y la presión contra personas vulnerables para expulsarlas de sus hogares.

No obstante, mientras esta actividad continúe siendo legal, la organización considera necesario actuar sobre aquellos comportamientos concretos que puedan ser perseguidos por distintas vías. La denuncia presentada contra Desocupa CyL responde precisamente a esta estrategia.

Empresas de desokupación: una estructura de carácter fascista

El Sindicato Socialista de Vivienda reafirma su caracterización de las empresas de desokupación como organizaciones de carácter fascista y reclama su total ilegalización.

La organización sostiene que esta definición responde a varias razones: En primer lugar, porque «sus métodos se basan en la violencia escuadrista contra la clase trabajadora». En segundo lugar, porque «la función que cumplen es la de defender a la clase propietaria más allá de la legalidad». Asimismo, denuncian que una gran parte de los integrantes de estas empresas mantienen vínculos acreditados con organizaciones, grupos o partidos de extrema derecha y que desarrollan una función ideológica basada en la criminalización de sectores vulnerables de la población. «Cumplen una función ideológica de criminalización y persecución del proletariado», señala el Sindicato.

Por todo ello, consideran que estas empresas deberían ser ilegalizadas. Sin embargo, denuncian que actualmente «gozan de la complicidad e incluso la colaboración de instituciones y cuerpos policiales», lo que obliga a combatir sus actuaciones en todos los ámbitos posibles: en la calle, en el terreno ideológico y también mediante acciones judiciales.

Los últimos casos de empresas de desokupación en Euskal Herria

El caso más reciente tuvo lugar el pasado 28 de mayo en el barrio de Dunboa, en Irún. Según explica el Sindicato Socialista de Vivienda, la empresa Desocupa CyL se presentó en el domicilio de una familia trabajadora con el objetivo de presionarla para que abandonara su vivienda.

La organización llevaba semanas acompañando a la familia y había preparado una respuesta colectiva ante una posible actuación de la empresa. Cuando los integrantes de Desocupa CyL intentaron acercarse al inmueble, se encontraron con miembros del Sindicato, que impidieron su actuación y les obligaron a abandonar el lugar.

Posteriormente, los responsables de la empresa anunciaron públicamente su intención de regresar esa misma tarde. Ante esta amenaza, decenas de personas se concentraron frente al portal para proteger a la familia. Finalmente, la empresa no regresó.

El Sindicato ha tenido conocimiento además de un segundo caso en la misma calle de Irún, donde otra familia trabajadora está sufriendo el acoso de la empresa Horus Desokupa. La organización se encuentra en contacto con la familia afectada y ya ha impulsado distintas acciones de protesta en la localidad.

Meses atrás también se produjeron otros episodios similares. En Zornotza, una madre trabajadora sufrió durante meses el acoso de Desocupa CyL. Según explica el Sindicato, la intervención organizada logró que la empresa cesara sus actuaciones, aunque no descartan nuevos intentos en el futuro.

Otro caso destacado tuvo lugar en Burtzeña, Barakaldo. Allí, miembros del Sindicato hicieron frente a los integrantes de una empresa de desokupación e impidieron que ejecutaran lo que califican como un desahucio ilegal. Posteriormente, la organización consiguió una alternativa habitacional para la familia afectada.

La organización como herramienta para frenar el matonismo

El Sindicato Socialista de Vivienda considera que todos estos casos demuestran la eficacia de la organización frente a las empresas de desokupación.

La organización señala que ha podido intervenir en estos conflictos porque existían canales de contacto y organización previa con las familias afectadas. Sin embargo, advierte de que existen muchas más actuaciones de este tipo de las que no llegan a conocerse públicamente. Por ello, hacen un llamamiento a reforzar las redes de organización y solidaridad frente a estas empresas.

«Como hemos visto recientemente en Irún, la organización es efectiva frente al matonismo. Estas empresas se valen de la intimidación y de la fuerza contra personas aisladas y desprotegidas; en el momento en el que un Sindicato les hace frente, su efectividad se desvanece y no pueden hacer otra cosa que marcharse por donde habían venido».

Para el Sindicato, los casos de Irún y Burtzeña muestran que estas empresas pierden gran parte de su capacidad de actuación cuando se encuentran con una respuesta organizada. Por ello, animan a todas las personas que estén atravesando situaciones similares a ponerse en contacto con el Sindicato Socialista de Vivienda para recibir apoyo y organizar una respuesta colectiva.

Contacto de prensa

Sindicato Socialista de Vivienda

Correo electrónico: etxebizitzasindikatua@kontseilusozialista.eus

Teléfono de contacto: 640 385 920 (Karla)

Etxebizitza Sindikatu Sozialistak Desokupa CyL salatu du eta desokupazio-enpresa faxisten suspentsioa eskatu du.

Sindikatuak salaketa aurkeztu du Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean, langile familien datu pertsonalen zabalpen eta esposizio publikoagatik.

Sindikatuak enpresa horien izaera faxista salatu eta haien suspentsioa eskatzen du.

Irungo, Barakaldoko eta Zornotzako azken kasuek erakusten dute antolakuntza dela haien jarduerari aurre egiteko tresnarik eraginkorrena.

Desokupa CyLren aurkako salaketa

Etxebizitza Sindikatu Sozialistak jakinarazi du salaketa aurkeztu duela Desocupa Castilla y León (Desokupa CyL) desokupazio-enpresaren aurka. Azken hilabeteetan Euskal Herriko hainbat txokotan bere jarduna nabarmen areagotu duen enpresa da.

Salaketa Datuak Babesteko Espainiako Agentzian aurkeztu da, eta enpresa horien ohiko praktiketako bat du jomuga: langile familien informazio pertsonala sare sozialen bidez publikoki zabaltzea.

Sindikatuaren arabera, enpresa horien negozio-eredua neurri handi batean egoera zaurgarrian dauden pertsonen esposizio publikoan oinarritzen da. Milaka jarraitzaile dituzten kontuetan etxebizitzaren helbideak, identitateak eta kaltetutako familien bizitza pribatua ere agerian uzten dituzten bideoak eta irudiak zabaltzen dituzte, eta seinalamendu eta gorroto kanpainak elikatu.

Etxebizitza Sindikatu Sozialistak adierazi duen bezala: «Milaka jarraitzaile dituzten kontuetan pertsona askoren helbidea, identitatea eta intimitatea ere agerian uzten dituzten bideoak argitaratzen dituzte. Horietan pertsona horien aurkako gorrotoa modu irekian sustatzen da, kontakizun faltsu eta kriminalizatzaileak eraikiz».

Antolakundearen ustez bereziki larria da praktika horiek normalizatzea. Azpimarratu du egoera ekonomiko zaurgarri batek ezin duela inola ere pertsona baten esposizio publikoa justifikatu. «Ezin dugu onartu halako basakeria normalizatzea: familia batek alokairua ordaindu ezin izateak ez du justifikatzen haren intimitatea sare sozialetan gorrotoaren objektu gisa erakustea».

Sindikatuak nabarmendu du, gainera, ekimen judizial hau berritzailea dela enpresa horien aurkako borrokan. Hala ere, gogorarazi du arazoa askoz sakonagoa dela. Desokupazio-enpresen jardunbide osoa ilegalizatzearen beharra azpimarratu du, pertsona zaurgarriak beren etxeetatik kanporatzeko mehatxuan, hertsapenean eta presioan oinarritzen baita.

Hala ere, jarduera horrek legezkota izaten jarraitzen duen bitartean, sindikatuaren ustez beharrezkoa da enpresa horien jokabide zehatzen aurka egitea, hainbat bidetatik borrokatu ditezkeenak. Desokupa CyLren aurka aurkeztutako salaketa estrategia horren barruan kokatzen da.

Desokupazio-enpresak: izaera faxistako taldeak

Etxebizitza Sindikatu Sozialistak berretsi egiten du desokupazio-enpresak izaera faxistako erakundetzat jotzen dituela eta haien erabateko ilegalizazioa eskatzen duela.

Antolakundearen arabera, definizio horrek hainbat arrazoitan du oinarria. Lehenik eta behin, «haien metodoak langile klasearen aurkako indarkeria eskuadrutan oinarritzen direlako». Bigarrenik, «betetzen duten funtzioa klase jabetuna legezkotasunaren gainetik defendatzea delako». Era berean, salatzen dute enpresa horietako kide askok lotura frogatuak dituztela eskuin muturrekoak edo zuzenean faxistak diren erakunde, talde edo alderdiekin, eta populazioaren sektore zaurgarrien kriminalizazioan oinarritutako funtzio ideologikoa betetzen dutela. Sindikatuaren hitzetan, «proletalgoaren aurkako kriminalizazio eta jazarpen funtzio ideologikoa betetzen dute».

Horregatik guztiagatik, enpresa horiek ilegalizatu egin beharko lirатеkeela aldarrikatzen du. Hala ere, gaur egun «instituzioen eta polizia-indarren konplizitatea eta lankidetzak» dutela salatzen dute, eta horrek haien jardunari aurre egitea eskatzen du esparru guztietan: kalean, esparru ideologikoan eta baita bide judizialaren bidez ere.

Euskal Herriko desokupazio-enpresen azken kasuak

Azken kasua maiatzaren 28an gertatu zen Irungo Dunboa auzoan. Etxebizitza Sindikatu Sozialistaren arabera, Desokupa CyL enpresa langile familia baten etxebizitzara gerturatu zen, familia etxea uztera behartzeko asmoz.

Antolakundeak asteak zeramatzan familiarekin harremanetan eta enpresaren balizko esku-hartzeari erantzun kolektiboa prestatzen. Desokupa CyLko kideak etxebizitzara hurbiltzen saiatu zirenean, Sindikatuko kideekin egin zuten topo; azken horiek haien jarduna eragotzi eta bertatik alde egitera behartu zituzten.

Ondoren, enpresako arduradunek arratsalde berean itzultzeko asmoa zutela publikoki iragarri zuten. Mehatxu horren aurrean, dozenaka lagun bildu ziren atariaren aurrean familia babesteko. Azkenean, enpresa ez zen itzuli.

Sindikatuak, gainera, Irungo kale berean dagoen bigarren kasu baten berri izan du. Bertan, beste langile familia batek Horus Desokupa enpresaren jazarpena pairatzen du. Antolakundea familiarekin harremanetan dago eta dagoeneko hainbat protesta-ekimen sustatu ditu herrian.

Hilabete batzuk lehenago antzeko beste hainbat gertakari ere izan ziren. Zornotzan, ama langile batek hilabetetan zehar jasan zuen Desokupa CyLren jazarpena. Sindikatuaren arabera, antolakuntza bidezko esku-hartzeak enpresa bere jarduna etetera behartu zuen, nahiz eta etorkizunean berriro agertzea baztertzeko ez duten.

Beste kasu esanguratsu bat Burtzeñan (Barakaldo) gertatu zen. Bertan, Sindikatuko kideek desokupazio-enpresa bateko kideei aurre egin zieten eta legez kanpokotzat jotzen duten etxegabetze bat gauzatzea eragotzi zuten. Ondoren, sindikatuak bizitoki-alternatiba bat lortu zuen kaltetutako familiarentzat.

Antolakuntza, matonismoari aurre egiteko tresna

Etxebizitza Sindikatu Sozialistaren ustez, kasu horiek guztiek erakusten dute antolakuntzak desokupazio-enpresen aurrean duen eraginkortasuna.

Adierazi du gatazka horietan esku hartu ahal izan duela kaltetutako familiekin aurretik harreman eta antolakuntza sareak zeudelako. Hala ere, ohartarazi du publikoki ezagutzera iristen ez diren mota honetako jarduera askoz gehiago daudela.

Horregatik, enpresa horien aurrean antolakuntza eta elkartasun sareak indartzeko deia egiten dute.

«Irungo azken gertakarietan ikusi dugun bezala, antolakuntza eraginkorra da matonismoaren aurrean. Enpresa hauek pertsona isolatu eta babesgabeen aurkako mehatxuan eta indarrean oinarritzen dira; Sindikatu batek aurre egiten dien unean, haien eraginkortasuna hutsaren hurrengoa da eta etorri diren bidetik alde egin besterik ez dute».

Sindikatuaren arabera, Irungo eta Burtzeñako kasuek erakusten dute enpresa horiek jarduteko gaitasunaren zati handi bat galtzen dutela erantzun antolatuen aurrean. Horregatik, antzeko egoerak pairatzen ari diren pertsona guztiak Etxebizitza Sindikatu Sozialistarekin harremanetan jartzera animatzen dituzte, babesa jaso eta erantzun kolektiboa antolatzeke.

Prentsarako kontaktua

Etxebizitza Sindikatu Sozialista

Posta elektronikoa: etxebizitzasindikatu@kontseilusozialista.eus

Harremanetarako telefonoa: 640 385 920 (Karla)